

 <p>AMOREBIETA- ETXANOKO UDALA P4800300H</p>	<p>IL0130</p>	<p>Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei zuzendutako diru-laguntza</p>
---	----------------------	--

ZER DA? ZERTARAKO DA?

Genero indarkeriaren biktima diren emakumeei, erasotzailearengandik independizatzeko eta euren egoera egonkortzeko aukera emango dien biziraupenerako gutxieneko baliabideak lortzeko ematen den laguntza ekonomikoa da.

NORK ESKA DEZAKE?

- Amorebieta-Etxanon errolatuta dauden eta Euskadiko Autonomia Erkidegoan gutxienez 6 hilabete daramatzaten eta genero indarkeriaren biktima diren emakumeei, biktimaren aldeko babes neurriak erabakitzen dituen zigor epaia dutenak eskariaren egunean. Aipatutako babes agindu hori eman denetik ezin izango urtebete baino gehiago igarota egon.
- Hileko zenbaketan, Indarrean dagoen diru-sarrerak bermatzeko errentaren %75 gaindituko duten errentak ez izatea.
- Enplegua lortzeko zailtasun bereziak izatea. Hori Lanbidek - Euskal Enplegu Zerbitzuak emandako txostenaren bitartez egiaztatuko da.
- Diru-laguntza hori aurretik jaso ez izana, ez Euskadiko Autonomia Erkidegoan ezta Estatuko beste ezein erkidegotan ere.
- Erasotzailearekin ez bizitzea.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- [E014 Genero indakeriaren biktimentzat ordainketa bakarrerako laguntza eskabidea](#)
- [E015 Genero indakeriaren biktimentzat ordainketa bakarrerako laguntzarako eranskina](#)
- Nortasun Agiri Nazionala, Pasaporte, Bizileku txartela.
- Familia liburua.
- Bankuko helbideratzea.
- Diru-sareren ziurtagiria (Nominak, DSBE-RGI, Pentsioak...)
- Azken bost urteetako ondasun, errenta eta banku kontuei buruzko Foru Ogasunaren ziurtagiria – Telefono bidezko eskaria 901502000
- Babes Agindua.

NON ESKATZEN DA?

Aurrez aurre:

- [Udaletxea](#)
Udaletxea
Herriko plaza z/g, 48340 AMOREBIETA-ETXANO
Ordutegia: 7:30 - 15:00

Email bidez:

- haz@amorebieta.eus

Posta arrunta:

-
- Udaletxeko posta arrunta
Herriko plaza z/g, 48340 AMOREBIETA-ETXANO

ZENBAT KOSTATZEN DA?

Kudeaketaren kostua Udalak hartuko du bere gain.

PROZEDURAREN EPEA

Prozedura arrunta. Legezko gehienezko epea: 6 hilabete
Isiltasun-administratiboaren izaera: Aldekoa

ARAUDI APLIKAGARRIA

- [1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero indarkeriaren aurka osoko babesa emateko neurriei buruzkoa](#) 27.artikulua

ESKAERA JASO ONDOREN JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA

1. Eskaria eta dokumentazioa jaso eta egiaztatu.
2. Erregistratu, eskaneatu eta kopia eman interesatuari.
3. Espedientea prestatu, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politika Sailera bidaltzeko.

NORK ONARTU BEHAR DU?

Eusko Jaurlaritza

IZAPIDETZEKO ARDURA DUEN UDAL SAILA

Gizarte ekintza - Gizarte Zerbitzuak

OHARRAK

Informazio gehigarria:hitzordua gizarte langilearekin